

Sergio Prego / AnT4rtida •  
5

Francisco Javier San Martín /  
Lurreratzea ◦ Aterrizaje  
13

Usue Arrieta / Beltzune  
zirkularra ◊ Negro circular  
29

Duen Saachi /  
Organoléptico  
44

Alberto Peral, Bea Espejo / Bi munduren  
artean • Entre dos mundos  
46

Leo Burge / “Bakardadearen ertzeko”  
etxea ◦ La casa “al borde de la soledad”  
59

Maia Villot / *Trenzari buruz* ◊  
*Sobre Trenza*  
70

Harriak ■ Agenda  
84

Irantzu  
Yaldebere  
88

# EREMUAK

## #6

## **eremuak #6**

### **edizioa / edición**

Aimar Arriola, Iñaki Imaz, Maider López, Leire Vergara

### **koordinazioa / coordinación**

Natalia Barbería, Maite Zabaleta Nerecán

### **testuak / textos**

Sergio Prego / Francisco Javier San Martín / Usue Arrieta / Bea Espejo, Alberto Peral / Leo Burge / Maia Villot

### **testu-edizioa / edición de textos**

Fernando Quincoces

### **irudiak / imágenes**

6-11 orrialdeak / páginas 6-11: Sergio Prego

erdiko orrialdea / página central: Duen Saachi

azken orrialdea / contraportada: Irantzu Yaldebere

HARRIAK-eko irudiak / imágenes de HARRIAK

[H1] [H5] Iñaki Imaz, [H2] [H7] Maider López, [H3] Nader Koochaki, [H4] Lorea Argarate, [H6] Sandra Cuesta, [H8] Jone Zubizarreta, [H9] Iñaki Garmendia

historikoaren irudiak / imágenes de agenda

[A1] [A2] Natalia Barbería, [A3] Ross Willows, [A4] Sahatsa Jauregi

### **diseinu grafikoa / diseño gráfico**

Maite Zabaleta Nerecán

### **euskararako itzulpena / traducción al euskera**

Belaxe

### **inprenta / imprenta**

Artes Gráficas Lorea, Donostia

aleak / tirada: 1.500

Donostia-San Sebastián 2019ko urria / octubre de 2019

[www.eremuak.net](http://www.eremuak.net)

© irudiena, artistek / de las imágenes, los artistas

© textuena, egileek / de los textos, los autores

ISSN: 2444-6319

lege gordailua / depósito legal: SS-1149-2015

eremuak. Arte garaikidearen testuingurua ekoizteko programa irekia. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Eusko Jaurlaritza

eremuak. Programa abierto para la producción de contexto en el arte contemporáneo. Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco

eremuakeko lan taldea: batzorde teknikoa: Aimar Arriola, Iñaki Imaz, Maider López. Koordinazioa: Lydia Lomas. Komunikazioa: Ane Martínez Recio. Harriak programaren koordinazioa: Leire Muñoz. Aldizkariaren koordinazioa: Maite Zabaleta

Equipo de trabajo de eremuak: comisión técnica: Aimar Arriola, Iñaki Imaz, Maider López. Coordinación: Lydia Lomas. Comunicación: Ane Martínez Recio. Coordinación del programa Harriak: Leire Muñoz. Coordinación de la revista: Maite Zabaleta

# eremuak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

2019ko urrian Azkuna Zentroan egitekoak diren *eremuak* nazioarteko jardunaldiekin batera, arte garaikidearen tokiko testuinguruan nahiz testuinguru orokorrean, orotariko adierazpideak erabiliz, usadioz **natura** esaten zaion horri buruzko interesa adierazten duten jarrera, lan eta diskurtsoen inguruko zenbait ekarpen bildu ditugu aldizkariaren zenbaki honetan. Gune instituzionalak atzean utzi eta kanpoalde konprometitu eta berritzaileen bila joan dira batzuk; beste batzuek, aldiz, prozesu edo organismo bizidunak sartu dituzte gune horietan, baina, nolana ere, kanpokotasungoak agerikoa dirudi.

*Natura* kontzeptua bera zaila dela jakinik, eta ardatz gisa aukeratutako gaia jarrera sinplifikatzaile batzuk goraiatzera ez mugatzeko asmoz —konplexutasuna berezkoa baita gizatiarra denaren eta ez denaren arteko harremanetan, bizidunaren eta bizigabearen artekoetan, organikoaren eta teknologikoaren artekoetan—, terminoari pluralaren marka jarri diogu (-k “naturak” adierazteko eta -s gaztelaniazko “naturalezas” hitzaren kasuan). Gure kulturaren ikuspegitik natura *bat* izatea bada haren funtsezko ezaugarria, kontzeptua pluraltasunetik abiatuta lantzeko planteamendua bera subertsio-aukera bihur daiteke, arreta eman diguten arte-adierazpideek planteatzen dutenarekin bat.

Gure aldizkarian ohikoa den bezala, zenbaki hau osatzen duten ekarpenak tipologia desberdinetakoak dira eta, **eremuak** deialdiaren bidez bultzatu diren artistetako batzuei ahotsa emateaz gain, gure testuinguruaren harira egindako jarduerak ere bildu ditugu.

Sergio Pregok aldizkarirako berariaz egindako ekarpenak testu labur bat eta sei zatitan banatutako dimentsio handiko irudia dakar. Zatietako bakoitzak orrialde oso bat hartzen duenez, osotasuna irudikatu beharko dugu.

Francisco Javier San Martínek sinatutako testuak, itxuraz oso desberdinak diren artisten lanak narrazio-hari bakarrean lotzeaz gain, ekarpen teoriko garrantzitsua ere badakar, aro modernotik aro garaikiderako ibilbidetan artearen eta naturaren arteko harremanak nola berrikusi diren aztertzen baitu.

Tractora Koop. E. sozietateak 2017 eta 2019 bitartean Donostiako Tabakalera egindako *Landa Lan. A documentation on Darcy Lange* erakusketaren inguruan elkarte horretako kidea den Usue Arrieta artistak sinatutako “Beltzune zirkularra” testua ere sartu dugu: akuitzat erabiltzen du “naturak” ideia, norabide zehatzik gabeko gogoeta abiarazteko bere lan-prozesuei buruz.

Testuinguru horretan edo testuinguru horretatik abiatuta urtean zehar egindako erakusketarik edo ekitaldirik garrantzitsuenen berri emateko asmoz, Alberto Peralek 2019ko otsailean Madrilgo Galeria Alegrian egindako *Abertura* erakusketaren harira Bea Espejo arte-kritikariaren eta eskultorearen beraren artean

izandako elkarrizketa ere ekarri dugu gure orrietara. Izan ere, *naturen* ideia antzeman zitekeen erakusketan, horma zeharkatu eta agerrarazten zuten elementuen (harrien edo hodien) bidez.

Zenbakia osatzeko ekarri ditugu, halaber, Halfhousen egin zuen arte-egonaldiari buruz Leo Burgek egin duen kontakizuna; Maia Villoten testua, Harriak 2018 programaren esparruan Gueñesen eta Ean komisariatu zuen *Trenza* erakusketari buruzkoa; *Organoléptico* argitalpen-proiektuaren ediziorako etengabeko deialdian gure laguntza jaso duen Duen Saachi artistaren esku-hartzea erdiko orrietan; eta, amaitzeko, Irantzu Yaldebereren atzeko azala, XIX. mendearen amaierako Ernst Josephson margolari suediarren *Ecstatic Heads* lanetik abiatuta egindako irudi batekin. Azken orrialdeetan, **eremuak**ek urtean zehar egindako jarduerak biltzen ditu agendak.

Azkenik, ongi etorria eman nahi diogu Aimar Arriola komisario, editore eta ikertzaileari, 2019ko ekainean **eremuak** batzorde teknikoan hasi berria den kideari. Aldi berean, egindako lana eskertu eta agur esan nahi diogu Leire Vergarari, editore gisa izan duen azken parte-hartzearen ondoren batzordea utzi duen kideari; haren ordeztatu da Aimar, hain zuzen.

Agur esan eta eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, Bilboko Azkuna Zentroa-Alhondigari, azken lau urteetan eremuak programa hartu duen erakundeari. Izan ere, 2020. urtetik aurrera etapa berri bati emango diogu hasiera Donostiako Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan.

*eremuak* #6 doan banatuko da, eta hainbat kulturazentro eta liburutegi publikotan dago eskuragarri, baita [www.eremuak.net](http://www.eremuak.net) webgunean ere, eta ingelesez ere bai, nahi duenak libre deskargatzeko.

De manera simultánea a las Jornadas internacionales **eremuak** celebradas en Azkuna Zentroa en octubre de 2019, reunimos en este número una serie de aportaciones en torno a actitudes, obras y discursos que, tanto en el contexto local como global del arte contemporáneo, se interesan de muy diversas formas por lo que tradicionalmente se ha denominado **naturaleza**. Desde el abandono de los espacios expositivos institucionales habituales en busca de un afuera comprometido y renovador, hasta la inclusión de procesos u organismos vivos en esos mismos espacios, el deseo de exterioridad parece evidente.

Siendo, sin embargo, conscientes de lo problemático del término *naturaleza* y en el intento de no reducir el eje temático escogido a una exaltación de actitudes románticas o simplificadoras de la complejidad inherente a las relaciones entre lo humano y lo no humano, lo vivo y lo inerte, lo orgánico y lo tecnológico, consideramos pertinente aportar al término el matiz de la pluralidad (la *-k* de *naturak*, o la *-s* de *naturalezas*). Si, desde nuestra perspectiva cultural, la característica fundamental de la naturaleza es ser *una*, el mero hecho de plantear el concepto desde lo plural podría suponer una posibilidad de subversión acorde a lo que plantean esas manifestaciones artísticas que nos han llamado la atención.

Las contribuciones que conforman el presente número responden, como es habitual en nuestra revista, a diversas tipologías y, en su conjunto, además de dar voz a parte de las y los artistas apoyados a través de la convocatoria de **eremuak**, recogen algunas de las actividades realizadas en relación con nuestro contexto.

La contribución de Sergio Prego realizada específicamente para la revista, articula un texto y un dibujo de grandes dimensiones dividido en seis fragmentos, cada uno de los cuales ocupa una página completa, de modo que la totalidad solo será posible imaginarla.

El texto firmado por Francisco Javier San Martín, además de disponer en un hilo narrativo el trabajo de artistas aparentemente muy dispares, supone una contribución teórica importante al plantear la revisión de las relaciones entre arte y naturaleza en el paso de la modernidad a la actualidad.

Incluimos también el texto “Negro circular” firmado por la artista Usue Arrieta, miembro de la asociación Tractora Koop. E., en relación con la exposición *Landa Lan. A documentation on Darcy Lange*, que dicha asociación desarrolló en Tabakalera de Donostia entre 2017 y 2019 y en la que la idea de *naturalezas* supone el estímulo necesario para poner en marcha derivas reflexivas sobre sus procesos de trabajo.

Con el ánimo de dar cuenta de exposiciones o eventos importantes celebrados en o desde el contexto a lo largo del año, incluimos también una conversación entre

la crítica de arte Bea Espejo y el escultor Alberto Peral a partir de la exposición *Abertura*, realizada por este en febrero de 2019 en la Galería Alegría de Madrid, en la que la idea de *naturalezas* se dejaba entrever a través de elementos (piedra o tubos) que atravesaban la pared mostrándola.

El número se completa con el relato de Leo Burge acerca de su estancia en la residencia artística Halfhouse; un texto de Maia Villot sobre la exposición *Trenza* que comisarió en Güeñes y Ea dentro del programa Harriak 2018; la intervención en las páginas centrales de Duen Saachi, artista apoyado en la convocatoria continua para la edición de su proyecto de publicación *Organoléptico*; y, para finalizar, la contraportada de Irantzu Yaldebere con un dibujo realizado a partir de la obra *Ecstatic Heads* de Ernst Josephson, pintor sueco de finales del siglo XIX. En las últimas páginas la agenda recoge las actividades realizadas desde **eremuak** a lo largo del año.

Por último, queremos aprovechar la ocasión para dar la bienvenida como miembro de la comisión técnica de **eremuak**, y en consecuencia también del equipo editorial de esta revista, al comisario, editor e investigador Aimar Arriola, recién incorporado en junio de 2019. Asimismo agradecemos su labor y despedimos a Leire Vergara, quien, al ser relevada por Aimar, deja la comisión tras esta su última participación como editora de la revista.

Nos despedimos también y damos las gracias a Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbao como institución de acogida del programa **eremuak** durante los últimos cuatro años, puesto que a partir de enero de 2020 emprendemos una nueva etapa en el Centro Internacional de Cultura Contemporánea Tabakalera de Donostia.


De distribución gratuita, *eremuak* # 6 está disponible en diversos centros culturales, bibliotecas públicas y, a través de libre descarga, también en inglés, en el sitio web [www.eremuak.net](http://www.eremuak.net)

Duela egun batzuk, kanpoan ginela, bizi ginen etxola erretzeko zorian egon zen gasoliozko Boker berogailuaren tximiniak su hartu zuenean. Baseko mantentze-lanez arduratzen zen militarrek guri egotzi zigun gertatutakoa, termostatoa 22°C-tan geneukala eta. Basera iritsi ginen une beretik argi eta garbi esan ziguten termostatoak 14°C-tan egon behar zuela, kontsumoa murrizteko, erregai-kantitatea mugatua zelako eta urtean behin baino ez zelako iristen hornidura. Gure erreserbak xahutuz gero, erregai gehiago ez ematearekin mehatxatu gintuzten eta, hori horrela, aginduak zorrotz bete genituen eta ahal genuen moduan egokitu gintzaizkion hotz itzelari. Hasieratik konturatu nintzen, beste tximiniei ez bezala, gureari ke beltza zeriola. Laster kontsumitu zen gasolio osoa, baina baseko buruak berriro betetzea onartu zuen, itxuraz, eta kontsumitzen emandako denbora laburra kontuan hartuta, berogailuaren beraren akatsa zelako. Sutearen ondoren Bokerraren dokumentazioa ikertu eta akatsa aurkitu nuen: gasolio-erregailuaren giltza aldatu egin zuten eta tamaina handiagoko beste bat ipini. Hartara, berogailuak ez zuenez langartutako erregaia ondo erretzen, ke beltza eragiten zuen; ke beltzak hodiak kedarrez bete zituen eta, azkenean, horiek su hartu zuten. Inolako arrazoirik gabe salatu gintuen militar atseginarean aurpegi ilunean nabarmentzen zen irribarre argia gogoan iltzatu zitzaidan.


Hondartzan ipar-ekialdera egin eta basea atzean utzi nuen. Glaziarraren eta itsasoaren arteko haitz-banda bat zen hondartza, badiaren kanpoaldean. Penintsulan glaziarretako izotzak estaltzen ez duen eremu gutxietako bat da eta udan haitzak agerian gelditzen dira. Bizkor nenbilen, bota zurrinak haitzen ertzetan ondo finkatuz, eremuan zehar lebitatzen ari banintz bezala. Bazirudien glaziarren eta izotzaren indarrak haitzak hautsi eta bat-batean ertz zorrotzak eragiten zizkiela, bestelako erosiorik izateko astirik eman gabe. Haitz grisak horizontalki hedatzen ziren paisaian, glaziarraren zuria eta itsasoaren kolore bizia albo batean eta bestean. Ez zen bizitza-izpirik nabarmentzen paisaia antzu hartan. Materia gordinaren meta hutsa balitz bezala, haitzaren azpiko hondarrean ez zen halako eremu batean bururatu zitzaidakeen inolako intsekturik, krustazeorik, algarik, usainik edo usteldurarik igartzen. Etxolan bertan, inork garbitu eta uretan pasatu gabe harraskan ezaxola utzitako zapi bustiari xaboi-usaina zerion halere, ez zegoelako hura lizunduko zuen bakteriorik. Arretaz nenbilen, beraz, inguruko haitzekin mimetizatuta zegoen itsas lehoi baten orroak ikaratu ninduean, masa izugarri baten pare altxatu baitzen beraren ondotik igaro nintzenean. Aurretiaz ohartarazi ninduten foka horiek oldarkorrek zirela eta abiada bizian egin zezaketela eraso, pisutsuak eta baldarrak iruditu arren. Eta itsasertzean, han-hemen hondartuta, korronteez bultzatutako izotz-zatiak, batzuk handi-handiak eta baten batzuk urdin bizi kolorekoak, jatorrizko glaziarren pean jasandako presioaren ondorioz.

Hondartzaren amaieran izotz-plaka batzuk zeuden, glaziarra, malda leunean, itsasertzera iristen zen inguruan. Pixka bat aurrerago glaziarrek eta itsasoko urak bat egiten zuten, hondartzako azken arroken gaintik zegoen izotzeko horma osatuz. Plaka baten gainean, lasai asko etzanda, bi Weddell-foka. Weddell-fokek itxura xaloa dute eta uretara egokitutako gorputza astiro irristatzen zaie izotzaren gainean. Neguan ur-azpian ematen duten denbora gehiena, -1°C-ko tenperatura etengabea, kanpoaldean -30°C-rainoko tenperaturak dauden bitartean. Horri esker Antartikoko itsas azpiko inguruneak kanpoaldean ez dagoen joritasuna erakusten du. Kanpora irteteko, itsas gaineko izotz-plaka zulatu egin behar izaten dute, kontinenteko kostaldetik mila kilometro baino urrunago ere irits baitaiteke plaka hori. Izotza karraskatzen ematen dute, beraz, negua, eta, ondorioz, hortzak higatu egiten zaizkie. Adinarekin, harrapakinak ehizatzeke ez dute balio hortzek. Horregatik Weddell-fokek beste foka-espezie batzuek baino bizi-itxaropen laburragoa izaten dute.


Antartikoko neguan icebergak gelditu egiten dira, itsasoa estaltzen duen izotz-plakak harrapatuta. Izotz-lautada handi bat osatzen da horrela, han-hemenka goi-lautadak mugatzen dituzten izotz-hormak ageri direla.
















# AnT4rtida

## SERGIO PREGO

Días atrás, mientras nos encontrábamos fuera, la cabaña que habitábamos estuvo a punto de arder cuando la chimenea de la calefacción Boker de gasoil cogió fuego. El militar encargado del mantenimiento de la base no tardó en acusarnos de haber tenido el termostato a 22°C. Desde nuestra llegada a la base habíamos sido instruidos de mantener el termostato a 14°C con objeto de restringir el consumo, ya que el combustible era limitado y el aprovisionamiento se realizaba una única vez al año. Amenazaron con no proporcionarnos más en caso de que consumiéramos las reservas de que disponíamos, y en consecuencia habíamos seguido las directrices escrupulosamente, acomodándonos a la frígida temperatura. Desde el principio observé que, a diferencia de las otras, la chimenea expulsaba humo negro. Al poco tiempo se consumió todo el gasoil, aunque el jefe de la base accedió a rellenarlo ya que parecía un fallo de la calefacción dado el corto plazo transcurrido. Tras el incendio investigué la documentación de la Boker y encontré el fallo. La espita del quemador de gasóleo había sido sustituida por otra de mayor tamaño y la calefacción, al no quemar bien el combustible pulverizado, producía el humo negro que a su vez había llenado de hollín los conductos del escape y estos habían terminado inflamándose. La blanca sonrisa sobre la tez morena del simpático militar que nos acusó infamemente permanecía fijada inerte en mi cabeza.

Dejé atrás la base caminando en dirección nordeste a lo largo de la playa, una franja de rocas entre el glaciar y el mar a la salida de la bahía. Es uno de los pocos puntos de la península que no está cubierto por el hielo de los glaciares y la roca queda descubierta durante el verano. Caminaba rápido con las botas rígidas sobre las aristas de las rocas, como levitando a través del terreno. Pareciera que la violencia de la fuerza de los glaciares y el hielo quebrara las rocas en formas facetadas de afiladas aristas a gran velocidad, sin darles tiempo a que sufrieran otro tipo de erosión. Las rocas grises se extienden horizontalmente en el paisaje silueteadas por el blanco glaciar y el intenso color del mar en sus dos flancos. Un paisaje estéril que no alberga atisbo de vida. Como si se tratara de un mero depósito de material en bruto, la arena debajo de las rocas se encuentra absolutamente lim-

pia de cualquier insecto, crustáceo, alga, olor o descomposición que yo pudiera anticipar en un lugar semejante. Incluso en la cabaña, el trapo húmedo que permanecía descuidado en el fre-gadero, sin que nadie se preocupara por lavarlo o siquiera aclararlo ocasionalmente, seguía manteniendo un suave olor a jabón dada la ausencia de bacterias. Caminaba alerta cuando me sobresaltó el rugido de un lobo marino, mimetizado con las rocas circundantes, que se irguió como una mole amenazante al pasar cerca de él. Me habían advertido de la agresividad de estas focas y de la velocidad con la que podían atacar, en contradicción con su aspecto pesado y torpe. Y salpicados por la orilla pedazos de hielo que arrastran las corrientes dejándolos varados, algunos masivos, algunos de color azul intenso fruto de la presión que han sufrido bajo los glaciares de los que son originarios.

Al final de la playa se extendían algunas placas de hielo en la zona en la que el glaciar bajaba en una suave pendiente hasta la orilla. Un poco más adelante el glaciar se encontraba con el agua del mar formando una pared de hielo por encima de las últimas rocas de la playa. Sobre una de las placas se encontraban tendidas plácidamente dos focas de Weddell. Las focas de Weddell tienen un aspecto afable y su cuerpo adaptado al medio acuático se desliza lentamente sobre el hielo. Durante el invierno pasan la mayor parte del tiempo bajo el agua disfrutando de un constante -1°C mientras en el exterior la temperatura puede bajar hasta los -30°C. Este hecho parece otorgar al medio submarino antártico una fecundidad inexistente en el exterior. Para poder salir a respirar realizan agujeros en la placa de hielo que se forma en la superficie del mar y que llega a extenderse más de mil kilómetros desde la costa del continente. Pasan el invierno royendo el hielo, lo que hace que se les desgasten los dientes, que con la edad se vuelven inservibles para atrapar sus presas. Por esa razón las focas de Weddell tienen una expectativa de vida más corta que otras especies de focas.

Durante el invierno antártico los icebergs quedarán inmóviles, atrapados en la placa de hielo que cubre el mar como una gran planicie sobre la que se levantan las paredes de hielo que delimitan vastas mesetas.

# LURRERATZEA

## FRANCISCO JAVIER SAN MARTÍN



*Trumoi-hotsak bezain erraz dardararazten du  
airea arratoi baten garrasiak.*

RALPH W. EMERSON, *Egunkari intimoa*

### Burdina jaten duten landareak

Surrealismorik militanteenaren muin antimodernista erakusten duen Benjamin Péreten testu labur bat argitaratu zuen *Minotaure*ren hamaikagarren zenbakiak. Albert Skirak eta Tériadek kaleratzen dute joera surrealistako aldizkari hori, Parisen. Arras esanguratsua da izenburua bera: “La nature dévore le progrès et le dépasse”<sup>1</sup> (Naturak aurrerapena irentsi eta gainditu egiten du). Naturaren eta aurrerapenaren arteko borrokaz mintzo da testua, bai eta sexu-harrapakaritzaz ere.


Atzera egin du oihanak, aizkoraren eta dinami-taren eraginez, baina trenaren bi igaroaldiren artean, trenbidera inguratu eta keinu zirikatzaileak eta begirada probokatzailak jaurtitzen dizkio konboiaren gidariari. Behin, bi aldiz, eutsi egiten dio ibilbide osoan atzetik dabilkion tentazioari, baina halako batean amore emango du maite duen emakumeren baten begiradak izango duen sorgindeiaren aurrean. Gelditu egin da tren-makina, berak behin-behinekotzat daukan baina infinituraino luzatuko den besarkada bat emateko, limurtzailearen desira etengabe berrituaren bitartez.

Artikuluaren lagungarri, argazki anonimo eta bakar bat, non oihan ilun eta ahalguztidunak gelditu eta irentsi egiten baitu tren-makina ahaltsu bat —lehen Iraultza Industrialaren gidaria, burdin eta ikatz puska galanta—, marisorgin baten antzera. Biziki maite dute surrealistek marisorginaren metafora, koitoaren ondoren arra txikitu eta irentsi egiten baitu animalia horrek. Organismo handi, geldo eta bigun baina, aldi berean, indartsu eta zabal batek gelditu egin du abiadura modernoa ekarri zuen makina hori; beraz, beharbada gehiago zen denbora- eta sedukzio-kontua indar- eta gogortasun-arazoa baino. Beti bezain freudiar amorratua, Bretonek kontzientzia modernoaren porrota ikusten du, landare-inkontzientzaren ahalmenaren garaipena, eta hondamendiaren ideia aipatzen du: Péreten testuaren iruzkinean dio “oihan birjinarren eldarnioaren mende urte luzez utzitako tamaina handiko tren-makina batek erakusten du, zalantzarik gabe, garaipenaren eta hondamenaren monumentu horren une magikoa”<sup>2</sup> Gozoa eta geldoa da landarediaren indarkeria, eta hondamendia ezkututzen eta hari monu-

mentu bat eraikitzen dio bere zorion-aginduak, maitasun-besarkada jarraitzeko promesak. Geroago, ezbehar *saihetsezintzat* jo zuen hori guztia Paul Viriliok, zeinak *dromologia* hitza asmatu baitzuen azelerazioaren zientzia definitzeko, eta datu ugari eskaini ideologia tekniko-zientifikoaz eta abiadurarekiko idolatriaz.<sup>3</sup> 2011n, naturak harrapatutako abiaduraren bertsio moderno bat (dromologikoa, Virilioaren zentzuan) egin zuen Francis Alÿsek. Izenburu adierazgarria du lanak (*Game Over*), eta laburtasun zorrotzez deskribatzen du artistak: “martxoaren 20an abiatu nintzen Mexiko Hiritik, nire *vochoan* (Volkswagena, Mexikon) eta Sinaloako Culiacáneraino joan nintzen. Hara iristean, Lorategi Botanikoko zuhaitz baten aurka jaurti nuen nire autoa. Naturak egingo du gainerakoa.”<sup>4</sup>

Iragan mendeko 30eko hamarkadako urte zalapartatsu haien amaiera aldera idatzi zuen Péretek testu hori. Ez dakigu, aldiz, noizkoa den oihanak irentsitako tren-makinaren argazkia, baina argi dago, hondakinaren kontzeptu klasikoaz eta ahalmen malenkonia-eragile eta oroitarazleaz landa, teknofosil baten sorreraz ari garela. Azken urteotan, zalantzan jarri dute kontzeptu hori Holozenoaren aroa amaitutzat ematearen aldekoek eta haren orde z haur aldarrikatzen dutenek: gizakiok Lurrari eragiten dizkiogun kalte itzulezinen aro berri bati ekitea.

*Minotaure* aldizkarian bi urte geroago argitaratutako artikulu batean (“Ruines: ruine des ruines”, hau da, Hondakinak: hondakinen hondamena), aurrerapenaren ideologiak eragindako holokaustoaren irudi beldurgarri bat dakarkigu Péretek. Baina hondamendi hori ez da urruneko oihan tropikal batean gertatu, Parisen erdian baizik. “... baina, beharbada, egunen batean, haren gomuta gizakien oroimenetik ezabatzen denean, animalia ezin bereziago baten fosiltzarra aurkituko dute: Eiffel dorrea”<sup>5</sup> Testu horretan, Péretek ez ditu aztertzen hondakinak ikuspegi klasiko batetik —hots, denboraren eta klimaren higadura gisa—, baizik eta gizakien indarkeria ikonoklasta modura. Gerora, Alain Schnappek berriro jorratu zuen kontzeptu hori (*Indarkeriaren arkeologia*). Gogora dezagun 1930eko hamarkadaren amaieran irudikatu zela lehenbizikoz nola garaitu zuen oihan beltzak teknologiaren distira, deforestazio industrial sistematikoa hasi berria besterik ez zenean, alegia. Ia mendebete geroago, behin betiko eskuratu dute agintea mundua suntsitzeko makineriak eta politikak, eta izugarri azkar ari da hedatzen suntsipena, nahiz eta tarteka iristen zitzaizkigun abisuak ez ziren jada poeta burubero eta psikoanalisiz mozkortutako batzuenak, baizik eta zientzia ekologikorenak, zeinak tarte horretan garatu baitzituen bere printzipioak, metodologia eta Lurraren baliabideak zaintzeko estrategiak.



## LA NATURE DÉVORE LE PROGRÈS ET LE DÉPASSE

par BENJAMIN PÉRET

**L**e soleil de midi écorche viv les spectres qui n'ont pas eu se cacher à temps. Leurs os devenus violons déchireront les oreilles des hommes aventureux égarés dans les forêts imitant une cour d'empereur de la décadence romaine.

Des langues de feu, des lueurs de seins, des chatouillements d'azur traversent la pénombre fruitée de vampires. C'est à peine si l'on marche sur le sol. Le sol a l'air d'une cervelle qui voudrait se donner des allures d'éponge.

Le silence pèse autant dans les oreilles qu'une pépite d'or dans la main, mais l'or est plus mou qu'une orange. Pourtant, l'homme est par là. Il a percé un corridor dans la verdure et, tout au long de ce corridor, a déroulé un fil télégraphique. Mais, vite, la forêt s'est lassée de pincer cette corde qui

ne rendait jamais qu'une voix d'homme et les plantes, mille plantes plus zélées, plus ardentes les unes que les autres se sont empressées d'étouffer cette voix sous leur baiser ; puis le silence est retombé sur la forêt comme un parachute sauveur.

Là, plus que partout ailleurs, la mort n'est qu'une manière d'être temporaire de la vie, masquant un côté de son prisme pour que la lumière se concentre, plus brillante, sur les autres faces.

Les crânes de ruminants abritent, dans les grands arbres menacés de mille lianas, des nichées d'oiseaux reflétant le soleil sur leurs ailes, les feuilles sur leur gorge. Et des taches de ciel bleu palpitent sur des charognes qui se métamorphosent en amas de papillons.

La vie lutte de toutes ses forces, de toutes ses

## Kontzeptual jasangarria


Duela urte batzuk, ekofania bat —Lurrari buruzko errebelazio bat— izan zuen Bruno Latour filosofoak, eta aldatu egin zizkion egungo munduaz ordura arte zituen iritzi gehienak. Soziologoa da Latour, zientziaren eta teknologiaren analisisan espezializatua, eta agerkunde horrek are gehiago bultzatu du Lurraren akidura aztertzeraz. Lurraren geroaz ikuspegi politiko humanista bat jorratzea du ardatz bere azken liburuak (*Où atterrir. Comment s'orienter en politique* = Non lurreratu. Nola orientatu politikan).<sup>6</sup> Kanadara egin zuen bidaia batean, esperientzia intuitibo baina oso indartsu bat izan zuen Baffineko badiaren gainetik hegazkinen igarotzean: ohartu zen leihotik ikusten zuen Artikoko izotzaren desegitea hegazkin hark ere eragina zela hein batean. Beste era batera esanda, sistema artikoaren egoera aldatzen ari zen, paisaia izoztu eta izugarri hartaz filosofoak zuen ikuspegia, Schrödingerren katuaren esperimentu birtualean bezala. Izan ere, *begiratzeak* aldatu egiten du paisaia; horrek, berriz, muga etiko bat ezartzen dio ikuskizunari, ez bakarrik desira- eta jabetza-mekanismo gisa, baizik eta suntsitze-faktore modura. Latourrek azaldu zuenez, errebelazio haren aurretik sublimea izango zatekeen hegazkinetik glaziarrak ikustea; baina, gerora, hegazkinaren emisioek lekua aldarazten dutela ohartzean, oso bestelako sentimendu bat sortzen zaio, “larritasun moduko bat”. Begiratzea izan zen desira sortzeko eta metatzeko mekanismo nagusia; desira ez asetzeak, berriz, berriro elikatzen zuen begiratzen jarraitzeko gogo, zirkuitu itxi baten antzera. Baina, beharbada, zirkuitu hori ez dago behar bezala itxita, eta zirrikituetatik egiten du ihes objektu desiratuaren suntsipena, munduaren suntsipena, iragartzen duen gas hilgarriak. Latourren esperientziak hala berresten duela ematen du.

Humanismoaren berehalako birdefinizioa proposatzen du Latourrek —hitzaren etimologiak (*humus*) lurrarekiko lotura adierazten du—, lurtarren hobirik zabalenean kokatzeko: basoak edo hesteetako bakterioak, hegaztiak edo mikroorganismoak.<sup>7</sup> Katamotza desagertzea ez da arazo estetiko bat, eliteek hala dioten arren azken hamarkadetan, baizik eta lurtarren estutzea eta, beraz, aparatu tekniko-industrialak ezartzen dion berritze-erritmoa jarraitzea lortu ez duen lurralde baten akiduraren sintoma. Ez da gizakien eta lurtarren arteko harmonia-kontu hutsa, zentzu sozialean, bien interesak (gizakienak eta bakterioenak, landareenak eta intsektuenak) elkarri estu loturik daudela ere adierazten baitu, eta denak hartu behar direla aintzat, hitzarmen bat behar dela konplexutasunaren eremuan berriro lur hartzeko. Ekoizpen-moduaren paradigma ekonomikoa handitu egin behar da, eta bizitzaren sorrera, transmisioa eta iraupena barne hartzen dituen modu zabalago bat eratu. Amaitzeko, hau zioen Latourrek: “Lurtasuna ez da erakunde bihurtu, oraindik,

baina modernoan izaerari esleitutako rol politikotik argiro bereizitako aktorea da jada.”

Ekologiak bezala, artearen zientziak ere ezagutza ezegonkorra behar du, baina ez ziurtasun sendoak ekarriko dizkion metodologia positiborik ez daukalako bakarrik, baizik eta baita testuinguruaren behaketa berri bakoitzak hura aldatzen duelako ere, modu ia hautemanezinean agian, baina egiazki eta era metagarrian. Duela jada mendi-erdi esan zuen Joseph Kosuthek ezegonkorra eta aldakorra dela artearen kontzeptua (ez arte kontzeptuala): artelan bakoitzak aldatu egiten du artearen kontzeptua eta etengabe aldatzen ari den inguru batean higitzen da artista ikertzailea, haren begiradak aldatu egiten baitu —beste behin ere— behatzen duen objektua. Ez dago kanpotik (hegazkin batetik, adibidez) objektu oso gisa beha daitekeen arterik, ikerketa artistikoak aldatu egiten baitu ikerketa ekinean diharduen bitartean. Arte-sistemaren funtzionamendua enpirikoki aztertzeko testuak eta objektuak egin zituzten Kosuthek eta Art & Languagek, baliokidetasun-zirkuitu trukagarri batean: zenbait objektu edo instalazio artearen ikerketa analitiko gisa agertzen ziren, eta zenbait testu, berriz, proposamen artistiko modura. Azken hamarkadetan artearen munduan hain emankorra izan den porotasun horretan kontzienteki ezkututzen zen ikusizkoaren inperioaren aurkako antagonismoa, zeinaren atzean —zehaztasun handiagoz edo txikiagoz— arte-merkatuaren aurkako enfrontamendua ez ezik lengoaiaren sugestioa ere baitzegoen, energia estetiko jasangarri gisa; ez zen ekologia formala soilik: materiala ere bazen.

Generikoa da zuhaitz edo semaforo isolatu baten ideia, animalia edo hiri batena; horregatik, mugatua da haren produktibitatea inguruarekiko imajinarioak sortzeko. Posizio dialektiko batean kokatu behar ditu arteak, trukeak eta irakurketak antolatzeke ez ezik hutsak eta deformazioak ere antolatzeke gai izan daitezen, dau den testuinguru sozialaren eta kulturalaren arabera. Izan ere, testuinguru aldakor eta konplexu horretan bakarrik bihurtzen dira ideia zentzudun. Naturaren eta lengoaiaren arteko ikuspegi dialektiko horretan, egokia iruditzen zait 1960ko hamarkadaren amaieran Lawrence Weiner egiten hasi zen testu-eskulturar gogora ekartzea; adibidez, **THE RESIDUE OF A FLARE IGNITED UPON A BOUNDARY** (Muga baten gainean piztutako bengala baten hondakina), 1969an Amsterdamen egin. Ekintzaren testuak diotenari soilik dago loturik eskultura, museoko harresiaren gaineko materialei eta lekuari. Irudiaren elipsia egiten duenez —bengalarena, hondakinarena, mugarena— eta lengoaiak bakarrik arduratzen denez, eskultura hori beti da *gaur egungoa* eta beti da *aldakorra*: ikusle bakoitzak irudikatzen du, bere buruan, gaur egun bengala bat zer den, zer hondakin uzten duen kontsumitu ondoren eta zenbat denboraz egon daitekeen piztuta. Baina testuinguruaz ere ardu-



Lawrence Weiner, *The residue of a flare ignited upon a boundary*, 1969. *The Guggenheim and the Tradition of the New*, 1994ko maiatzaren 20tik irailaren 11ra, Solomon R. Guggenheim Museoa, New York

ratzen da, beti: ikusle bakoitzak sortzen du bere kultura materialaz eta sinbolikoaz duen irudia, munduko tes-tuinguru desberdinetan. Beti dago bengala bat piztuta —baliabiderik erretzen jardun gabe— geuk irudika dezakegun mugaren batean; *stricto sensu*, etengabe berritzen den energia estetikoa da. Labur esanda, objektu zehatz horrek ez du forma zehatzik, ikuslearen buruan izan ezik. Harald Szeemann parafraseatuz, eta hain sarritan ahazten dugun haren erakusketa ospetsuaren izenburuaren lehen parte ere gogoratuz, *lengoaia forma* bihurtzen da. *Live in Your Head*<sup>8</sup> erakusketaz ari gara. Eskultura horiek pisu berri baten pean jasotzen dute adierazlearen eta adieraziaren, zeinuaren eta irudiaren arteko dialektika. Ez dezagun ahantzi lengoaiak baliabide sinbolikoak bakarrik kontsumitzen dituela eta eskulturaren eraginkortasun energetiko izugarriko faktore gisa agertzen dela proposamen hauetan.

Harrezkerotik, Weinerren erradikaltasuna azpimarratu izan da haren jardun eskultorikoaz, haren bira linguistikokoaren egokitasun kontzeptualaz eta objektuaren beharpen merkatu-kontrakoaren izaeraz mintzatzean, baina ez hainbeste haren proposamen eskultorikoaren jasangarritasunaz, lengoaia energia amaiezin gisa erabiltzeaz (alor sinbolikoari dagokionez, behintzat): lengoaiaren etika objektuaren estetikaren aurka. Objektu manufakturuaren presentzia hutsaren bidez arakatu zuen *ready made*ak adierazpenaren alderdi linguistikoa; Weinerrek, berriz, justu kontrako aukera aztertu du, lengoaiaren potentzialtasun materiala jorratuz, objektuak, materialak eta egoerak bistaratzeko ahalmena baitauka. Duchampek higatu egin zuen egiletzaren eta jatorrizko obraren kontzeptua, eta adeitasunez baimendu zituen bere lanen erreproduktzio-mota gehienak; Weinerrek, berriz, urrats bat gehiago egin zuen, eta jabetza publikokotzat aldarrikatu zuen bere ekoizpenaren erdia. “Nire obrak erosten dituztenek noranahi eraman ditzakete, eta, nahi izanez gero, be-

rreraiki. Ez dute zertan lanak erosi haien jabe izateko; horretarako, aski dute haiek ezagutzea.”<sup>9</sup>

Geroago, hau idatzi zuen Marcel Broodthaersek, ideia hori beste ikuspegi batetik bultzatuz: “Arte plastikoetan eta musikan, hitza edo ideia dira espazioari buruzko nozio modernoan jatorria [...] Ez dago lehen mailako egiturarik haiek definitzen dituen lengoaiaz landa. Esan nahi dut artista batek ez duela bolumenik erakitzen, idatzi baizik.”<sup>10</sup> Minimalismoaren eta lehen mailako egiturei dagozkien tramankuluen aurkako aurrez aurreko haren erasoan, *American way of life* delakoaren arbuio lausoa ez ezik beste hau ere atzematen zen: proposamen linguistikoen iraunkortasunaren aldeko jarrera, aberastasun sinboliko agorrezina baliabide materialak xahutzearen aurka. Ikuspegi horretatik, prozedura estetiko bat jarri zuen martxan Broodthaersek, joko modernoaren mahai-tapizean Mallarmék egindako dado-tiraldia berpiztuz. Orain, mendebete geroago, jada ez da berdea mahai-tapiz hori; jada ez da zuria munduari dadoak jaurtitzeko orri hori: suntsituta dago, akitua, zikina, zartatua, abailtze-zorian..., eta zorrozki galdetzen digu zilegi zaigun jokatzeko jarraitzea, edo, aitzitik, jokoa kontzientzia eta borroka bihurtu behar den: nahitaez Lurraren heriotza ekarriko duen gainbeheraren paradigma onartzea da salbazio-makineria humanista esnarazteko baldintza. Hona zer idatzi zuen Hal Fosterrek Lothar Baumgartenek Amerikako jatorrizko herriei buruz egindako lanaz: “Heriotza onartzea da humanisten joko zahararen lehen keinua: objektu-kultura berpizteko, lehenbizi hil egin behar du; hura erreskatatzeko, aldeztu aurretik suntsituta egon behar du eta ez du gai izan behar ez bere burua ulertzeko ez bere burua babesteko.”<sup>11</sup>



## Landare-harresia

Itziartik gertu dagoen baso bateko zenbait pinuren irudia, Bilbotik Donostiarako autobusetik hartua. Bilboko Arte Ederren Museoa 2001ean egindako *Gaur Hemen Orain* erakusketako katalogoan argitaratu zen zortzi argazkiko sekuentzia, non artistaren izena besterik ez baitzen ageri: Ibon Aranberri. Paperezko zortzi orriko baso bat, artistarentzat ohar paisajistiko bat baino ez ziren arren *Umweltaren* (ingurune biologiko eta komunikatiboaren) azterketa- eta kritika-proiektu orokorrako batean. Logotipo-girlandak, eskultura instituzionala, espeleologia, plan hidraulikoak eta energia nuklearra hartzen ditu barne proiektu horrek.

Sekuentzian, zuhaitzak eta zerua besterik ez, edo, zehatzago esanda, basoaren profil muxarratua, uniformeki hodeitutako zeru bateko *skyline* bat bezalakoa. Ez etxerik, ez argindar-zutoinik, ez pertsonarik: argazkiaren enkoardaketak sortzen duen elipsiaren bitartez aratz ageri den tarte bat besterik ez. Ez da kasualitatea guk ezer ez ikustea, pinu-ilara hau ere bai baita: zerbait ezkututzen duen landare-harresia, eremu sinboliko lauso bat, komunitate ikusezin, galdu edo, agian, oraindik existitzen ez den bat topografikoki zedarritzea xede duena. Toki horren argazkiek ez dute errealitatea osatzen, ezta haren irudikapena ere; ordezkapen-modu bat dira, eta baso horren, komunitate ikusezin horren existentziaren ordez haren galera erakusten digute. Zintzilik dagoen zerbait jendearen begiradatik ezkututzen duen hiriko txalet baten pezoaren antzeko zerbait. Artistak landare-hesiarekin topo egitean —Duchampen *rendez vousa*—, aktibatu egiten da lehendik ere leku horretan sor zegoen zentzumen baten ezagutza. Duchampek baino hiru mende lehenago, Berkeleyy zioen sagar baten zaporea ez dagoela osatzen duten elementuetan, ezta jaten duen pertsonarengan ere, baizik eta bien elkartean. Ez da kasualitatea elkartze hori —alderantziz: han jaioa zen artista—, eta sustatu egiten du basogintza ahul eta industrializatu baten ahalmen sinbolikoa.

## Lur-mugimendua

1980ko hamarkadaren hasieran, lurpeko indusketa sinboliko-telurikoko proiektu bat egin zuen José Ramón Morquillasek Ezkerraldean: sakoneko zerak iker-tuz azaleraz jarduteko estrategia bat. Meatzaritzako eta siderurgiako jarduera-eremu nagusietakoa izandako Argalario mendian egin zuen indusketa, zeinak hau iradokitzen baitzuen: euskal paisajismoari buruzko topikoen azpian burdina eta ikatza zeudela, ekoizpen industrialaren harremanak ezkututzen zituen pantaila bat zela azaleko paisajismoa, botere- eta jabetza-harremanak inkaminatzen zituzten geruza bat zirela zelai berdeak. Bertako edertasun idealizatuaren para-

digmaren pean, azaleko paisajismoak ezkutatu egiten ditu tentsio sozialak, eta alde batera uzten lurraldearen eta jendearen zaintza. Lurraldearen konplexutasuna ikertzeko induskatzen zen Lurraren barru aldera, azal huts gisa ikusi ohi dugun kontzeptu horri sakontasuna ematearren eta, bide batez, Estatuaren administrazio-koordinatuetatik libratzearen. Bestalde, modernitatearen aurka joatea ere bada induskatzea, aurrerapen jarraituaren utopian oinarritutako aurrerabidearen eta hazkundearen kontrako lurpe-bilaketa, hots, herentzia-, berreskuratze-, zaintza-bilaketa.

Morquillasen *Argalario* proiektuan, Oteiza eta egitura argitzen duen geometria gogorarazten zituen kuboaren formak; materialak, lurra; induskatzearen ideiak, *povera* artea edo *Earthworksak*; lurpeko kokapenak, Smithson... Hori guztia, baina, 1980-81eko Euskal Herriko giroan kokatu behar da, lurpeko gaiari buruzko ikuspegi erabat politikoan eta legez kanpokoan —*underground*—: satorrez eta zizarez, sustraiz eta haziz beteriko iluntasuna, amaitzen ez zen diktadura politikoaren eta sortzen ari zen tokiko botere-harremanen geografia politikoaren aurkakoa edo ordezkoa. Bere obra osoan, uko egin dio Morquillasek ekintza politikoari arrotza zaion berezitasun formal baten arabera lan egiteari. Honenbestez, “sustraiak” arakatu gabe haiez mintzo zen euskal paisajismoak ez bezala, Morquillasen materia ilunak lurraldeari buruzko ikerketa politiko-arkeologikoa proposatzen zuen.

Handik hogeita hamar urtera, Santiago Sierrak berriro induskatu du lurra, zentzu eta testuinguru oso desberdinetan. *40 m<sup>3</sup> de Tierra de la Península Ibérica* lanaz ari naiz. Hori ere kubo-forman egin zen, plastikozko edukiontzi formalizatuetan. Alemaniara bidali ziren kuboak, sinbolikoki salatzeke *PIGS* deritzenen mendekotasuna Europako botere politikoaren muinarekiko. Ez da, zehazki, euskal lurra, ezta espainiar lurra ere, baizik eta iberiarra —tradizio anarkistari jarraikiz—, baina Bilboko portutik bidali zen Alemaniara. Muntroak sortzen dituen amets bilakatu da Duchampen arintasunaren eta obra eramangarriaren paradigma arrazionalista-kartesierra. Egungo mendekotasuna kapital likido lurraldegabeetan hezuramaitzen da; nazioz haraindikoak eta erabat hegakorrek dira. Oinetxea edo ondasun higiezin bat —Ama Lurra...— ezere truke emateak, herrialdearen entregatze hutsak, lehenbizi Engelsek eta Rosa Luxemburgok eta geroago *Socialisme ou Barbarie*koek aipatu zuten basakeria-itxura hartu du. Modernitatearen amaieran, bertako boterearen mitologiari aurre egiten zion lurpeko herrialde batean arakatzeko hondeatu zuen lurra Morquillasek; handik urte batzuetara, Sierrak lekukoa hartu eta herrialde bati (sinbolo bati) eman zion lur hura. Herrialdeak, berriz, horretarako boterea zuelako jaso zuen lurra.

Morquillasek iraganaren eta lurraren zientzia gisa baliatzen du arkeologia, artea korrontearen aurka mintzarazteko, estatuen eta kulturen zientzia-sistemetako diskurtso lerrokatu gabeko gisa. Zientziatik urrundu egiten da arkeologiaren protokolorik gabe Barakaldon erauzitako lur-kubo bat, eta lurpearen, historiaren, hondakinaren eta ezkutuko igurtzien poesia-  
ra hurbiltzen. Morquillasek kuboa orain aztertze-  
ko aukerarik bagenu, ez genuke aurkituko ez Azil aldiko hondakinik, ez historiaurreko logotiporik, baizik eta orainarekiko gatazka politikoa. Pino Pascaliren zuzeneko aipamenak egiten dituen arren, badirudi *Argalario* proiektua gertuago dagoela Alighiero Boettiren *Mettere al mondo il mondo*tik: zeure lurra aurkitu, oinpean daukazun hori, lurraren jabeen aurkako borroka agonista balitz bezala. Hona datu adierazgarri bat: leku berean ekoitziak dira pieza biak. Morquillasek hondeatu egin zuen; Sierrak garraiatu; Morquillasek ikertu eta esperimentatu; Sierrak lurra entregatu, zakarki; Morquillas kuboa forma ospetsuaz baliatu zen; Sierra edukiontzi industrialez; Morquillasek lurraldearen poesia politikoa atek zabaltu zizkion; Sierrak ekonomiari men egin eta Europako hegoaldearen hondakinak entregatu zituen. Kasu bietan, Lurraz hitz egiteko lurra erabiltzea metafora bat da, eta handitu egiten da, ez bi termino horien arteko harreman ilunagatik, baizik eta beren nortasunagatik; hala, bada, metafora literal bat ageri zaigu, adierazpen estereotipatu asko baino oximoron produktiboago bat.

### Tokiko uholdea

Milioika urteren poderioz berez sortzen diren zenbait prozesu geologikoren azelerazio neurrigabea da urtegi artifical bat, eta hau du natural batekiko alde nagusia: azelerazioa ez da hondamendi geologiko batek eragina, baizik eta administrazioak paisaiari ezarria. Epe geologikoen eta gizarte- zein lurralde-egituren arteko bereizketa erreala adierazten du urtegiak, aurrerapen-

nahiak eraginda, produktibitatearen paradigmen araberena dena (biztanleak, haien bizitzak eta munduak barne direla) kontrolatzen duen lurraldearen optimizazioa helburu hartuta. Lurra desagertu egiten da, eta, haren orde, aberastasuna dakarren hura agertzen. Izan ere, ura dugu osagai nagusia, eta ura du jatorri bizitzak. “Kartografia likidoei” buruzko paradoxa asmatu zuen Zygmunt Baumanek; Jean Baudrillardek, berriz, “zeinu flotatzaileen” ideia. Horra bi metafora hidrauliko, bi bider mingarriak lurra galdu dutenentzat.

León Porma eskualdeko urtegiari buruzko pieza bat da Mawatren *Nacido en (...n jaioa)*. 1950eko hamarkadaren amaiera aldera eraiki eta eskualdeko zortzi herri urperatu zituen urtegiak herritarrei eragindako hondamendia eta lekuaren nortasuna uztartzen ditu lanak. Lurraldea urperatu zuen urtegiak, baina Mawatren proiektuak lurrik gabe gelditu ziren herri-tarrengan jarri zuen arreta, edo, hobeto esanda, galera haren dokumentazio administratiboan. Sorteritrik lekualdatuak, gutxi asko hurbil zegoen beste herri batean errefuxiatuak, NANA berritzean beste izen-desplazamendu bat jasan zuten herritar haiek, eta jaiok ere errealaren orde pertsonak kontrolatzeko baliagarria zen beste bat jarri behar izan zuten. Sorlekua mapatik ezabaturik, dokumentaziotik ere kendu egin zen eta, hala, zonbi administratiboak edo tokiko *aberrigabeak* sortu ziren. Baina, kontuz!, ez zitzaie *aberria* kendu, *lurra* baizik, hektarea bakoitzaren etekinak handitzea erabaki zuen enpresa eta erakundearen arteko partzue-  
go baten erabakiz urperatuta.

Katastroaren burokraziari aurre egiteko prozedura burokratiko xume bat proposatzen du *Nacido en* lanak: benetako jaiok berreskuratzea, baita jada erregistroetan ageri ez bada ere. Zapaldu ezin duten lurralde batean oinarritzen da mikrogaraipen hori, baina desplazatu-bizimoduaren zati bat berreskuratzen laguntzen die. Konpentsazio pertsonalaz landa, “dena galduta dagoelako ustearen aurka eguneroko bizimoduaren sortzen den borroka- eta erresistentzia-keinu



Santiago Sierra, *40 m<sup>3</sup> de tierra de la Península Ibérica*, Berlin, KOW, 2013ko irailaren 14tik urriaren 30era. Artistaren kortesiaz

MawatreS, *Nacido en* proiektua, *Región (Los relatos). Cambio del paisaje y políticas del agua* erakusketaren barruan. León, MUSAC, 2017ko abenduaren 2tik 2018ko maiatzaren 27ra



gisa” proposatzen du garaipena artistak.<sup>12</sup> 2002an Francis Alÿsek Limako kanpoaldean egin zuen *La fe mueve montañas* (Fedek mendiak mugitzen ditu) hark ez bezala (hamar zentimetro mugitu zuen duna bat, “egoera politiko jasanezin batean” kolektibitateak egin dezakeenaren adibide mitologiko gisara), *Nacido en* lanak lurraldea du mugimendu-leku, baina irentsi gabeko elikagai modura edo kontzientzia berri bat erakitzeke berrerabil daitekeen amesgaizto baten antzera orainaldira itzultzen diren bataila galduen eremuan. Kolektiboa eta heroikoa zen Alÿsen pieza; MawatreSena, berriz, indibiduala eta lizunki burokratikoa. Baina antzekoa da keinu antagonista, eta honela ikusten ditu artistak NAN horiek, jabeen benetako sorlekua aurkitzean: lurraldearen organismo administratiboa kutsa dezaketzen “birusak” balira bezala.

### Leku egokian, garai okerrean

2000. urtean sortu zuen Blue Origin enpresa Jeff Bezosek, eta hamabost urte daramatza espaziora bidaiatzeko espazio-ontzi berrerabilgarriak ikertzen eta probatzen. Hona konpainiaren helburu nagusia: “presentzia iraunkorra izatea gizakiak espazioan”. Kontua ez da jada espazioa ikertzea, kanpoko espazioa konkistatzea edo kolonizatzea, Gerra Hotzaren garai heroiko haietan bezala, baizik eta, ezagutzaren paradigma berrian, “espazioko turismoan”, espazioan irauteko lehenbiziko eta benetako urratsa egitea (oraingoz, ezinezkoa, baina egingarria). Oraingoz, ezinezkoa da Lurretik kanpora luzaroan bizitzea, baina agian ez da hori garrantzizkoena, baizik eta elite teknolatiko horren borondatea, hots, Lurretik alde egiteko asmoa, behin

betiko agortua den planeta honetatik ihes egitekoa. Eta klima-aldaketa ukatuz edo haren garrantzia gutxituz adierazten da borondate lizun hori. Baliabideak amaitu ahala, itsasoaren maila igo eta klima berotu ahala, autoritarismo berri bat bultzatzen dute eliteek, eurek bakarrik gozatzeko geroz eta urriagoak diren baliabideez eta lurraldeez. Atariko urratsa da hori, azken konponbidea izango den honetara iritsi arte: gure planetatik alde egitea. Etorkizun horretako bidaiariak ez dira izango abenturazaleak, gaizkileak edo hereje jazartuak, XVI. mendetik aurrerako kolonizazioetan ez bezala: gutxiengo izugarri aberats batek alde egingo du ordurako hila egongo den Lurretik. Izan ere, “ezerk ere ez du etorkizun hoberik etorkizun ez-ziur batek baino” dioen baikortasun burugabe horren mende dago mundua, antza.

